

## Kutxabankek Mutualiaren diruzaintza orokorreko zerbitzua eskuratu du

- **Mutuak eta bankuak kudeaketa-kontratua bi urterako berritu dute, eta beste bi urtera luza daiteke**
- **Bankuak Euskadin dituen bulegoen presentzia eta zerbitzu elebiduna emateko gaitasuna faktore erabakigarriak izan dira esleipenean**

**2022ko azaroaren 7an.** Mutualiak diruzaintzako zerbitzu orokorrerako Kutxabanken duen konfiantza berritu egin du. Hori dela eta, Erakundeak Euskadiko erreferentziako mutuaren kobrantzak eta ordainketak administratuko ditu, Gizarte Segurantzaren erakunde laguntzailea den aldetik.

Esleipen berriak kontua bi urterako kudeatzea dakar, beste bi luzapen-aldi egoteko aukerarekin, eta Kutxabanki ere eman zitzaion aurretiazko kontratuari gehitzen zaio.

Ignacio Lekunberri Mutualiako zuzendari kudeatzaileak eta Fernando Irigoyen Kutxabankeko Handizkako Negoziorearen zuzendari nagusiak sinatu dute lankidetzahitzarmena.

Ignacio Lekunberriren iritziz, zerbitzu hori Kutxabanki esleitzeak pertsona eta enpresa mutualistei arreta hobea ematea bermatzen du, eta Mutualiaren balioetako biri atxikitzen zaio: hurbiltasunari eta eraginkortasunari.

Fernando Irigoyenen aburuz, “oso garrantzitsua da akordioa, Euskadiko erreferentziako mutuak ibilbide luzea du gure bezeroa izaten, eta gurekin lan egitea erabakitzen duten pertsona guztiei eskaintzen diegun kalitate-zerbitzuan konfiantza berritzen du”.

Lizitazioaren emaitza erabakitzeko faktore erabakigarrien artean, Kutxabankek euskal lurralde osoan duen bulego kopuru ugaria egon da. Kutxabankek Euskadiko biztanleen %98ri baino gehiagori ematen dio zerbitzua, eta 2.000 biztanletik gorako udalerrri guztietan dago.

Kontratuak, Mutualiaren bezeroei arreta pertsonala bi hizkuntza ofizialetan ematea bermatzen du, 5.000 biztanletik gorako herrietan Kutxabankek dituen bulegoetan.

Mutualia 2. Gizarte Segurantzarekin Elkarlanean diharduen mutua da eta bere helburua da elkartutako enpresei eta pertsona babestuei zuzendutako osasun-zerbitzuak, prestazio ekonomikoak eta prebentzio-jarduerak kudeatzea. 650 langile baino gehiago ditu, eta batez ere Euskadin egiten du lan; bertan, 3 ospitale eta 15 laguntza-zentro ditu, eta 420.000 pertsonari baino gehiagori ematen die estaldura.